



Ayuntamiento de OYON-OION
OYON-OIONgo Udala

PARKING DE AUTOCARAVANAS DE OYÓN - OION

PARKING DE AUTOCARAVANAS DE OYÓN - OION

**Calle La Espina
01320 Oyón-Oion
Álava**

Propietario: **AYUNTAMIENTO DE OYÓN-OION**

Precio y servicios incluidos: **GRATIS**

Tipo: **PÚBLICO**

Acceso: **LIBRE**

Entorno: **URBANO**

Nº plazas: **12**

Estancia máxima: **72 horas a contar desde la parada hasta abandono de la plaza.**

GPS: **N♦ 42° 30' 33.123" / W♦ 2° 26' 20.933"**



**ACCESIBLE SILLA
DE RUEDAS**



PERNOCTAR



AGUA POTABLE



**VACIADO AGUA
GUAS GRISES**



**WCquímico
AGUAS NEGRAS**



MASCOTAS



ZONA PICNIC



BARBACOA

Web: www.ayuntamientodeoyon.com

E-mail: aoyon.archivo@ayto.araba.eus

Teléfono: **945-622190**

Fax: **945-622183**

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Behin betiko onarpena ematea bide publikoa mahaitxoaz, mahaiz eta aulkiz okupatzea arautzen duen ordenantzari

Bo160517A. Bide publikoa mahaitxoaz, mahaiz eta aulkiz okupatzea arautzen duen ordenantza behin betiko ezartzeko espedientea jendaurrean jartzeko aldiari ez dira erreklamaziorik aurkeztu. Gainera, Oiongo Udalak behin betiko onartu du bide publikoa mahaitxoaz, mahaiz eta aulkiz okupatzea arautzen duen ordenantza. Onartutako ordenantzaren testu osoa jendaurrean erakutsiko da, denek jakin dezaten eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikulua betetzeko.

Ordenantza osorik argitaratuko da eta indarrean jarriko da Tokiko Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan ezarritako epealdia amaitutakoan. Indarrean egongo da berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da iragarki hau argitaratu ondorengo egunetik hasita, halaxe agintzen baitu Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 26/1998 Legeak 46. artikuluan.

Oion, 2016ko maiatzaren 17a

Alkatea

EDUARDO TERROBA

Bide publikoa mahaitxoaz, mahaiz eta aulkiz okupatzea arautzen duen ordenantzaren testu osoa. Erreferentzia alfanumerikoa: Idaz/Ord TerrazakMahaitxoak

Atariko titulua

1. artikulua. Oinarria

Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak emandako gaitasunen arabera, udal mugartean bide publikoa mahaitxoaz, mahaiz eta aulkiz okupatzeko estetika irizpideei buruzko udal ordenantza hau onartu du Oiongo Udalak.

Ordenantza honekin oinezkoentzako espazio publikoaren banaketa arautu nahi da eta instalazioen estetika dauden ingurura egokitu, herriguneari erakargarritasuna emanda eta kalitatea hobetuta, bai bisitarientzat, bai bertako herritarrentzat.

2. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

1. Oiongo udal mugartean dauden bide publikoetako zoruan edo airean kokatuko diren altzariak, toldoak eta beste elementuak jartzean ordenantzan xedatutakoa bete beharko da.

2. Ordenantza honen xedea da bide publikoa hartzen duten instalazioei eta mahaitxoan terrazei ezar dakiekeen erregimen juridikoa finkatzea.

3. Ordenantza honen xedeetarako, terrazetan sartzan dira mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, itzalkinak, toldoak, lorontziak eta gainerako altzariak, desmuntagarriak badira eta beraien jarduera honako establezimendu nagusi hauetakoren batekin batera edo modu osagarrian egiten badute: taberna, kafetegia, jatetxea, taberna-jatetxea, kafetegi-taberna, txokolategia, izozkitegia, te aretoa, croissantegia, hoteletako taberna edo jatetxea, denboraldiko kioskoa edo finkoa eta antzekoak. Mahaitxoan terrazetan dagokion establezimenduan ematen diren produktu berdinak eman ahal izango dira soilik eta establezimenduko jarduera berdina egin ahal izango da.

3. artikulua. Lizentzia beharrezkoa da

1. Oiongo bide publikoan edozein motatako altzari, eguzkitako edo toldo jartzeko, aurrez udalaren lizentzia behar da. Era berean, udal ordenantza hau bete beharko dute ordenantza hau indarrean jartzen denean dagokien baimena lortu duten establezimenduek. Horretarako, udalak jarduera horietako titularrei eskatuko die ordenantza honetako xedapen iragankorrean adierazitako baldintzetara egokitzeko.

2. Bide publikoan edozein motatako altzari, eguzkitako edo toldo jartzeko, txosten teknikoa behar da monumentu kategoriaren barruko interes kultureko ondasunen, katalogatutako ondasunen edo inbentariatutako ondasunen eremuan edo horiek guztiak babesteko inguruan.

4. artikulua. Ez dago eskubiderik aurrez

Jabari publikoko ondasunen bateraezintasun eta preskribaezintasun oharren arabera, okupazioa baimentzeko beharrezko baldintzak betetzeak ez du lizentzia lortzeko baimenik ematen. Udalak egiazko edo aurreikus daitezkeen gorabehera guztiak kontuan izan eta lizentzia emateko edo ukatzeko askatasuna du, interes orokorra partikularrari gailenduta.

Lehenengo titulua- Xedapen orokorrak

5. artikulua. Altzariak, materialak eta koloreak

1. Jarriko diren altzariak eta toldoak edo erabiliko den kolore sortak kasu kasu bat etorri behar du inguruko eraikin artistikoekin, historikoekin, arkeologikoekin, ohikoekin edo tradizionalekin, nahiz eta eraikin horrek ezaugarri horietako bat bakarra eduki.

2. Mahai eta aulkien egitura burdin, nikel edo egur tonukoa izan ahalko da. Eserlekua eta bizkarraldea okre, krema eta gris kolorekoak izango dira.

3. Alboko babesak edukiz gero, mugikorak izan beharko dira, gardenak edo opakak, baina beti ere inguruko baldintzetara egokitutakoak. Dagokion instalazioari baimendutako zabalera izan beharko dute gehienez. Ezingo dira lurzorura ainguratuta egon, erraz desmuntatzeko modukoak izan beharko dira eta gainerako mahaiekin batera kendu beharko dira. Gutxienez metro bateko garaiera izango dute eta gehienez 1,50 metrokoa. Horien egokitasuna udal zerbitzu teknikoan oniritziaren mende geratuko da.

4. Itsuek oztupoa identifikatu ahal izango dute.

5. Eguzkitakoak eta toldoak kolore bakarrekoak izango dira. Koloreen sorta krema edo artila kolorekoa izango da. Oiongo BIA eremuan eta inguruan, oro har, debekatuta dago toldoak instalatzea. Itzalkinak eta eguzkitakoak bakarrik jarri ahal izango dira.

6. Era berean, bide publikoan jarriko diren altzariak eta egiturak mugikorak izan beharko dira, hau da, erraz erabili eta desmuntatzekoak eta bata bestearen gainean pilatzeko modukoak.

7. Oro har erabat galarazita dago zorua zulatzea edo terrazako edozein elementu bertan finkatzea, zorua narriatu badezake. Hala ere, aipaturiko horiek egin ahal izango dira, behar bezala justifikatuta badaude eta udal zerbitzu teknikoek gainbegiratuta egiten badira, eskatzaileak aurrez fidantza jarrita, zoru publikoa toldo horiek instalatu aurretik zegoen egoeran uzteko, eta hori urtero berrituko da.

8. Terraza jartzeko baimena duten ostalaritzako edo antzeko establezimenduek berogailuak jarri ahal izango dituzte baldintza hauen arabera:

a. Erabiliko den gas berogailua gas aparatuei buruzko ekainaren 29ko 1990/396/EEE Zuzentarauan finkatutako araudira egokitu beharko da. Zuzentaru horrek dio estatu kideek gas aparatuei buruz antzeko legedia izan beharko luketela edo, dagokionean, indarrean dauden araudiak ere bai, aparatu horien ezaugarriei, funtzionatzeko moduari eta iraunkortasun baldintzei dagokienez.

b. Ez da berogailurik jartzeko baimenik emango, azpitik igarotzeko 2,20 m baino gutxiagoko garaierarik ez badute.

c. Dena dela, interesdunak gutxieneko eraginkortasuneko 21A 113B su itzalgailuak izan beharko ditu gehienez 15 metrora eta erraz hartu daitezkeen tokian.

d. Baimendutako lau mahaiko bat jarriko da gehienez.

e. Azarotik apirilera jarri ahal izango dira berogailu horiek.

f. Egunero kendu beharko dira, bide publikoan jarritako altzariekin batera, horretarako baimendutako ordutegiaren arabera.

g. Berogailuak jartzeko, titularrak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

h. Berogailuaren ezaugarri fisikoak, teknikoak eta estetikoak.

i. Terrazaren planoak, berogailuen kokapena adieraziaz.

j. Berogailuaren kalitatearen bermea eta EEEko homologazio ziurtagiria.

k. Aseguru enpresarekin kontratua, terrazan berogailuak jarriko direla adieraziaz.

l. Jarriko diren berogailu guztientzako ontziratutako gasa hornituko duen enpresarekin adostutako hornikuntza kontratua.

m. Jardute aldia.

9. Agiri guztiak egiaztatutakoan eta inguruaren edo bide publikoan erasana izan dezaketen gorabeheren arabera, txosten teknikoa egingo da eta hor ezarriko dira berogailuak jartzeko baimenaren baldintzak edo baimen hori ez emateko arrazoiak.

6. artikulua. Terrazak ixteko ordutegia

1. Terrazak ixteko ordutegia ikuskizun publikoen eta aisiako jardueren ordutegiari buruzko arautegikoa izango da.

2. Artikulu honetako 1. atalean adierazitako ordutegia betetakoan, terrazaren titularrak ordenantza honetako 8. artikuluan xedatutakoa bete beharko du.

3. Terrazak zamalanetan eragina izanez gero, udalak terraza horren ordutegia murriztu egin dezake eta zamalanen arabera jarri.

4. Udalak bide publikotik terrazako altzari guztiak kentzeko aginduko du gorabeherengatik hala egitea beharrezkoa bada, adibidez, kultur jarduerengatik, jarduera zibil edo sozialengatik, edo hirigintza aldatu delako, taldeko araudiengatik, pasabidea erregulatzeko edo baimena emateko gorabeherak aldatu direlako.

7. artikulua. Publizitatearen debekua

1. Altzariek eta gainerako elementuek ezingo dute inolako publizitaterik eraman, establezimenduaren izena eta logotipoa izan ezik. Izen hori behin baino ezin da agertu eta justifikatutako proportzioetan jarriko da.

2. Elementu osagarriek ere ezingo dute publizitaterik eraman, hau da, zaborrontziak, lorontziak, giroak bereiztekoak, oina duten hautsontziak edo antzekoak. Horietan ezingo da inolako publizitaterik joan eta erabiliko diren gainerako altzarien ezaugarrietara egokituko dira

8. artikulua. Altzariak bide publikotik kentzea

Terrazaren funtzionamenduaren ordutegia amaitzen denean, instalazioaren titularrak gehienez ere 30 minutuko tarteaz izango du altzari guztiak bide publikotik kentzeko, eta altzari guztiak establezimenduaren barruan batuta geratu behar dira establezimendua jendearentzat itxita dagoen bitartean. Edo, bestela, altzariak batu eta giltzarrapo batekin lotuko ditu beste norbaitek kentzeko ordua eta gero bide publikoan altzariak berriz jarri ezin dituela bermatzeko.

Mahaiz eta aulkiz okupatzeko lizentzia duen titularrak okupatzen duen eremua garbitu beharko du.

9. artikulua. Terrazen kokapena eta neurriak

1. Toldoen eta altzarien kokapenak eta neurriak ez dute ohiko hiri paisaiaren harmonia hautsiko edo paisaia horren ikuspegia itxuragabetuko. Era berean, barneko dependentzien balizko erabiltzaileei eta lokaletako terraza horiek erabiliko dituztenei ez zaie modu eroso eta seguruan sartzea edo irtetea galaraziko eta mugikortasun murriztukoak erabiltzeko modukoak izango dira. Era berean, establezimenduko eraikinean erabilera pribatua egiten bada, ez zaie erabilera hori egiten dutenei sarbidea zailduko eta oinezko zirkulazioa ere ez.

2. Bide publikoan ezarri nahi diren terrazek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a. Terraza espaloian baldin badago, azken horren zabalera 4 metro edo gehiagokoa izango da, eta pasatzeko, gutxienez, 1,80 metroko espazioa utzi beharko da, ordenantza honen I. eranskinean jaso den bezala. Luzetara espaloia zati bat osatzen duten lorategiak dituzten eremuak daudenean, aurreko paragrafoan aipatutako zabalera oinezkoak igarotzeko libre dagoen tarteaz izango da.

b. Terraza zintarriko lineatik 0,30 metrora kokatuko da eta terrazak, gehienez ere, 20 metroko luzera eduki ahal izango du, betiere, eraikinaren fatxadaren aurreko aldea barne hartuko du. Ondoko eraikin bera komunean duten bi terraza baldin badaude, eremua berdin banatuko da bien artean.

c. Sei metro baino gehiago dituzten espaloietan, terrazak ezin izango du espaloia 1/3 baino gehiago hartu.

d. Establezimenduaren aldeetakoren batek proiektatutako espaziora eman beharko du, mahaitxoan terraza jarri ahal izateko. Establezimendua eraikinaren barneko pasabide, galeria edo merkataritza zentzoren batean badago, eraikinaren aurrealde nagusiaren aurrean jarriko da terraza.

e. Oinezkoentzako kale batean jarri nahi izanez gero, gutxienez hiru metro zabaleko bidea utziko da libre husteko eta larrialdietarako eta larrialdietako bide horren beste aldeko aurrealdera terrazatik gutxienez 1,80 metroko distantzia egongo da. Aurrekoari kalterik egin gabe, terrazaren kokapen zehatza kasu bakoitzeko gorabeheren arabera zehaztuko da, hau da, bide publikoaren alde bakoitzeko establezimendu dentsitatearen, bide publikoaren ezaugarrien eta abarren arabera eta ordenantza honetan aurreikusitako dimentsioak beteko dira beti.

f. Terrazak ezin izango dira hiriko bankuetatik 1,50 metro baino gutxiagora jarri, terraza jarri nahi den bidean hiri altzari horiek dauden kasuetan. Elkarren ondoan dauden terrazen kasuan, gutxienez bi metroko tarteaz egon beharko da batetik bestera, alde bien artean berdin banatuta.

3. Espazio batean terraza jartzeko baldintza guztiak bete arren, ezingo da horrelakorik baimendu terraza horrek oinezkoen joan-etorria nabarmen galarazten badu joan-etorri hori handia delako, nahiz eta ordu jakin batzuetan bakarrik izan.

4. Plaza edo espazio jakin bateko terrazan kontzentrazioak espazio horren berezko zeregina aldatu egin badezake, instalazio berriak jartzeko edo lehengoak berritzeko baimenak batera ebatziko dira, egoki irizitako baldintzak edo mugak ezarrita.

5. Galtzadan kokatzen diren mahaitxoak atxikitako oholtza baten gainean jarri beharko dira, espaloiaaren altuera berean eta aparkatzeko alboko eremuaren gainean; ezin izango da inoiz 2,10 metroko zabalera gainditu. Kasu horietan, erabiltzaileen segurtasuna eta osotasuna arriskuan ez jartzeko, terrazak kanpoko zintarritik 0,30 metro atzerago eramango dira.

10. artikulua. Altzariak jartzeko preskripzioak

Jarriko den terrazako altzarien elementuak preskripzio hauen mende egongo dira:

1. Ezingo da bide publikoan jarri baimenean berariaz aipatzen ez den altzaririk, dekoratzeko elementurik edo lurra estaltzekorik.

2. Mahaitxoaren moduluan 0,70 metroko mahai biribil edo lauki bat eta lau aulki sartzen dira, aulkiek elkarren aurrez aurre egon behar dute bi eta bi. Mahaitxoaren modulu honentzat 1,80 metro x 1,80 metroko azalera hartu da kontuan eta gehienez metro bateko mahaia baimenduko da. Dagoen espazioaren ondorioz mahaitxo horientzako tokirik ez balego, mahai bat eta bi edo hiru aulki jarri ahal izango dira. Altzariak mugikortasun murriztuko erabiltzaileen ezaugarrietara egokituta egongo dira.

3. Terrazako toldo, itzalkin eta eguzkitakoen gutxieneko altuera 2,20 metrokoa izango da eta gehienekoa 3,50ekoa, eta hegalak ez dira, inondik inora, terrazarako baimendutako espaziotik kanpo egongo.

4. Libre utzi beharko dituzte ureztatze-ahoa, ur-hartuneak, finketako atarien galtzadarako irteerak eta pasabideak.

5. Terrazak argien instalazio elektrikoa baldin badu, lokal bustietan instalazioa jartzeko indarrean dagoen legediak eskatutako baldintzak bete beharko ditu. Eroaleak jendearen irismenetik kanpo egongo dira, ezingo dira espaloietatik igaro eta ezingo dira zuhaitzak edo hiri altzariak erabili euskarri gisa. Instalazio hau urtero gainbegiratu beharko du baimendutako instalatzaile elektriko batek eta dagokion adostasunezko buletina egingo du. Udalak edozein unetan eska dezake buletin hori.

6. Ezingo da jarri saltzeko makina automatikorik, aisiarakorik, ausazko jokoetakorik, billarrik, haurrentzako jolasik edo antzeko ezaugarriekiko beste ezer.

7. Zerbitzu publikoen erabilerari ez zaio oztoporik jarriko eta berehala erabili ahal izateko bezain libre utziko dira.

8. Larrialdiko irteeren zabalera libre utziko da eta, era berean, albo bakoitzean metro bateko tartea utziko da libre.

9. Garraio publikoaren geralekuak eta oinezkoen pasabideak ez dira oztopatuko.

10. Terraza batzuek eskaintzen duten zerbitzuagatik eta kokapenagatik udalak zorua babes-teko sistemak ezartzeko eska dezake, ingurua babesteko tratamendu berezia behar bada.

11. Terrazak ez du galaraziko bere inguruko establezimenduen zama lanik, horretarako egokitutako eremuetan.

11. artikulua. Galarazpenak eta preskripzio gehigarriak

1. Erabat galarazita dago terrazan audio eta bideo ekipoak erabiltzea. Terrazaren funtzionamenduak ezingo ditu etxebizitzaren eta egoitzazko erabileren, ospitaleen, laguntzazkoen, kulturalen, eta abarren barne eta kanpo aldean Zaratei eta Dardarei buruzko araudian ezarritakoak baino zarata handiagoak sortu.

2. Terraza jartzea eskatzen duen establezimenduaren titularrak erantzukizun zibileko aseguruak eduki beharko du, terrazaren funtzionamenduaren ondorioz egon daitezkeen arriskuak estaltzeko.

3. Terrazaren titularrek bertako instalazioak, elementu guztiak, espazioa eta eragin esparrua behar bezain garbi, seguru eta dotore mantendu beharko dituzte. Horretarako, espazio publiko hori zikindu dezaketen hondarrak biltzeko eta biltegitratzeko behar diren elementuak eduki beharko dituzte. Estetika eta higiene arrazoiak direla eta, ezingo da jarduerako produktu, material edo hondarrak terrazaren ondoan edo instalazioaren kanpoaldean biltegitratu. Egunero garbituko da.

4. Eragin esparrua esatean, aurrealdea edo aurrealdeak eta terrazaren arteko espazioaz ari gara eta, kasu guztietan, terraza jartzeko baimendu den azaleraren kanpoko perimetrotik metro erdiko espazioa.

5. Terrazaren titularrek lizentziaren agiria eta terrazaren planoak erabiltzaileek, auzotarrek eta agintariek ikusteko moduko tokian jarriko dituzte.

6. Terrazarako baimena emateak ez du esan nahi, inondik inora, festetarako barra jartzeko baimena ematen denik.

7. Ordenantza hau ez da ezarriko udalak sustatutako ekitaldietan behin-behinerako edo noizik eta behin horrelako instalazioak jartzeko.

Bigarren titulua – Salbuespeneko xedapenak

12. artikulua. - Eremu jakin batzuetan instalatzeko baldintzak

Hutsik

13. artikulua. Erabilera publikoko espazio libre pribatuetan terrazak jartzea

1. Terraza lurzoru pribatuan jarri gero erabilera publikoa egiteko, nahitaez lortu beharko du dagokion lizentzia eta dagozkion tasak ordaindu beharko ditu.

2. Kasu hauetan ordenantza honetan aurreikusitako erregimen orokorra ezarriko da.

3. Lizentziak hauek jabetza eskubiderik gabe eta hirugarrenei kalterik egin gabe emango dira.

4. Instalazioak ezingo du bera dagoen eraikin edo lokaletako hustuketa zaildu.

5. Terraza batzuek eskaintzen duten zerbitzuagatik eta kokapenagatik udalak zorua babesteko sistemak ezartzeko eska dezake, ingurua babesteko tratamendu berezia behar bada.

Hirugarren titulua - Lizentziak

14. artikulua. Lizentziak emateko prozedura

1. Terraza berri bat jartzeko edo jada emandako lizentzia bat aldatzeko lizentzia eskariekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a. Lokalean jarduera egiteko lizentzia eman dela ziurtatzeko egiaztagiria eta jarduera kalifikatzeko txostenean ezarritako neurri zuzentzaileak bete direla ziurtatzeko egiaztagiria.

b. Jarri nahi diren altzarien zerrenda, kopurua, materialak eta kolore sorta ordenantzako 5. artikuluan adierazitakoaren arabera.

c. Terrazaren kokapena adierazten duen planoak 1: 500 eskalan; bertan, honako hauek adierazi beharko dira: okupatuko den azalera, espaloien zabalera, izkinetaraino dagoen distantzia, autobusen geralekuak, kioskoak eta jada bertan dauden hiri altzarien elementuak.

d. Xehetasun planoak, 1: 100 eskalan, terrazako altzarien elementu guztiak adierazita, baita mota, kopurua, neurriak, hartuko den azalera osoa eta kokapena ere. Hori guztia planoan islatu beharko da. Era berean, establezimenduko aurrealdeari dagozkion neurriak kotatuko dira,

espaloiairen zabalera eta, dagokionean, dauden hiri altzariak eta zuhaitzak. Hauek erabat libre geratu beharko dute.

- e. Aseguru poliza beteta duela adierazten duen agiria.
- f. Terraza jarri nahi den aldera dauden aurrealdean argazkia.
- g. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren altaren aitorenaren fotokopia.

2. Lizentzia ebatzi eta jakinarazteko eta berritzeko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da. Aipatutako epea bete ondoren ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, eskaera ukatu dela ulertu daiteke.

3. Terraza jartzeko aldia baino lehen eskatuko da lizentzia berria edo lehen dagoena berritzea, kontuan izanda administrazioak ebazteko gehienez zenbateko denbora duen.

4. Lizentzia alkatearen ebazpenaren bidez emango da, eta beharrezkoa izan daiteke beste edozein txosten egitea, ordenantza honetako 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

15. artikulua. Funtzionamendu aldia eta lizentzien indarraldia

1. Lizentzia urtebetean funtzionatzeko eskatuko da. Hau da, zergaldiak urte natural bat hartuko du.

2. Udal lurzoru publikoan instalazioak jartzeko emango den lizentzien indarraldia baimendutako aldiari dagokio soilik.

16. Artikulua. Transmitigarritasuna eta lizentzien iraungitzea

1. Terraza jartzeko emandako lizentzia, dagokion establezimenduaren lizentziarekin batera eskualdatuko da. Lehengo eta oraingo titularrek udalari eman beharko diote horren berri. Terrazaren ustiaketa ez da, inondik eta inora, berari dagokion establezimenduaren jardueratik independentea izango.

2. Lizentziak berritu ahal izango dira interesdunak eskaera egiten badu eta udal jabari publikoaren erabilera pribatuagatik eta aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantzan eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu eta gero, bereziki, C epigrafekoak (Erabilera publikoko lursailak aulki, mahai eta mahaitxoekin okupatzea, irabazi asmoz).

3. Berritzeko eskariarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a. Establezimenduaren funtzionamendu lizentziaren fotokopia.
- b. Aseguru poliza beteta duela adierazten duen agiria.
- c. Berritzen den lizentziarekiko aldaketarik ez dagoela dioen zinpeko aitordena.

d. Aurreko ekitaldietan terraza jarri izanagatik zerga betebeharrean egunean dagoela egiaztatzeko ziurtagiria.

4. Aldaketa egin nahi izanez gero edo eginez gero, ez da lehengo lizentzia berrituko, baizik eta beste lizentzia bat eskatuko da.

Laugarren titulua – Legezketasuna eta zehatzeko araubidea berrezartzea

Lehenengo kapitulua - Legezketasuna berrezartzea

17. artikulua. Lizentziarik gabeko instalazioak

1. Udalari dagokio ordenantza hau betetzen dela zaintzea, eta horretarako egokiak diren ikuskapen eta kontrol lanak garatu beharko ditu.

2. Ordenantza honen mendeko instalazioak dagokion lizentziarik gabe jartzen badira udal jabari publikoko sailetan edo erabilera publikoko eremu pribatuan, berehala kendu beharko

dira aurrez hala aginduta. Agindu hori ahozkoa izan daiteke eta alkateak edo eskuordetutako tokiko organoak emango du.

a. Horretarako, tokiko autoritateak, agindu hori jaso eta gero, establezimenduaren titularrari edo arduradunari eskatuko zaio jarritakoa kendu dezala. Errekerimenduari jaramonik egiten ez bazaio, tokiko autoritateak dagokien udaleko zerbitzuak edo kontratuaren adjudikazioduna bertaratzeko eskatuko du, hala badagokio, ken dezaten.

b. Tokiko autoritateak egindako jarduketan akta egingo du, gertatu dena leialki jasoko duena. Interesdunari ale bat emango zaio eta dagokion administrazio unitateari bete ale bat bidaliko zaio.

c. Ahozko agindu horren idatzizko berri emango da eta establezimenduaren titularraren izenean egingo dira sortutako 30/1992 Legeko 55. artikuluan ezarri bezala. Hamar eguneko epean jakinaraziko da.

3. Lizentziarik gabeko instalazioak jarraitzen bada eta errepikatzen bada, erruduntasun testigantza epaitegira igorriko da jarrerak zigor gaitzespenik ba ote duen ikusteko.

18. artikulua. Baimendutakoak baino elementu gehiago edo azalera handiagoa

Aurrekoa artikuluan xedatutakoa ezarriko zaie baimenean ez dauden terrazako elementuei edo baimendutako terminoak gainditzen dituztenei.

19. artikulua. Baimena baliogabetzea

Lizentziako edo baimeneko baldintzak betetzen ez badira, lizentzia ebazteko edo baliogabetzeko prozedura hasiko da.

Bigarren kapitulua – Zehapen araubidea

20. artikulua. Prozedura arauak

1. Ordenantza honetan xedatutakoarekin bat ez datozen ekintzek edo gabeziek erantzukizun administratiboa sortuko dute titulu honetan xedatutakoaren arabera, egon daitezkeen erantzukizun zibil edo penalei kalterik egin gabe.

2. Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak ez betetzetik etor daitezkeen udal jarduerak prozedura, aurkaratze eta, oro har, lege araubide zehatzailearen arauetan xedatutakora egokituko dira.

3. Alkateari edo eskuordetzen dion Oiongo Udaleko beste edozein organori dagokio zehatzeko ahala esleitzea.

21. artikulua. Erantzuleak

Ordenantza honen aurka egindako arau hausteen erantzuleak terrazaren instalazio lizentzian titular bezala agertzen direnak izango dira eta, horrelakorik ezean, terrazaren establezimenduko titularra.

22. artikulua. Arau haustek

1. Ordenantza honetan xedatutakoaren aurkako ekintzak edo gabeziak arau haustek dira eta arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

2. Honako hauek arau hauste arinak izango dira:

a) lizentziaren agiria eta terrazaren planoa erabiltzaileek, auzotarrek eta agintariek ikusteko moduko tokian ez jartzea.

b) Terrazaren eremuan edo bide publikoko beste edozein tokitan produktuak, ontziak edo hondarrak pilatzea edo biltegitratzea.

c) Ordenantza honetako beste edozein baldintza ez betetzea, larritzat edo oso larritzat hartzen ez den heinean.

3. Arau hauste larriak dira:

a) 6 hilabeteen hiru arau hauste arin egitea.

b) Lizentzian aurreikusi gabeko altzariak edo elementuak jartzea terrazan edo baimendutakoak baino gehiago jartzea.

d) Baimendutakoa baino azalera handiagoa hartzea.

e) Nahitaezko aseguruia ez izatea.

f) Instalazioaren funtzionamenduaren ondorioz auzotarrei edo oinezkoiei oztopoak sortzea.

g) Audio edo bideo tresnak edo ekipoak jartzea.

h) Lizentzia eta xehetasuneko planoak ez erakustea hala eskatzen duten agintariei edo eskumendun funtzionarioei.

i) Altzarietako elementuetan publizitatea jartzea, Ordenantza honetan xedatutakora doitu gabe.

j) Establezimenduaren funtzionatzeko ordutegia amaitzen denean altzariak terrazetatik kentzeko edo batzeko eta pilotzeko obligazioa ez betetzea.

k) Instalazioetan eta eraginpeko eremuan txukuntasunik eta garbitasunik ez izatea.

4. Arau hauste oso larriak dira:

a) Sei hilabeteen hiru arau hauste larri egitea.

b) Baimenik gabe edo baimendutako aldiak kanpo terrazak jartzea.

c) Terrazaren ustiaketa titularra ez den bati lagatzea.

d) Legaltasuna betetzeko hartutako neurriak ez betetzea.

e) Berariaz baimendutako ikuskizunak edo ekitaldiak egitea.

f) Ikuskapen lanak egiten ez uztea edo oztopatzea.

g) Lizentzia lortzeko aurkeztutako datuak edo agiriak manipulatzeko edo gezurrezkoak izatea.

i) Lizentziaren indarraldia amaitutakoan altzariak ez kentzea.

23. artikulua. Zehapenak

1. Ordenantza honetan xedatutakoaren aurkako ekintzei edo gabeziei isuna jarriko zaie eta horren zenbatekoa eta maila doitzeko artikulua honetan 2 eta 3 atalak erabiliko dira, hurrenez hurren.

2. Ordenantza hau ez betetzeagatik isunen zenbatekoak:

a. Arau hauste arinak: 200 euro baino gutxiago.

b. Arau hauste larriak: 200 eurotik 900 eurora arteko isuna.

c. Arau hauste oso larriak: 900 eurotik 1.800 eurora arteko isuna.

3. Egokiak diren zehapenak mailakatzeko, gorabehera hauek hartuko dira kontuan.

– Nahita egin den edo behin eta berriz egin den.

– Urte berean antzeko arau haustea berriz egitea, ebazpen irmoz hala egin dela adierazi bada.

– Arau haustearen izaera, auzotarrei eragindako kalteak edo oztopoak kontuan izanda.

– Arau hausteagatik lortutako etekin ekonomikoa.

24. artikulua. Kalteen ordainak

Zehapen prozeduraren ondoriozko administrazio erantzukizunak bateragarriak dira araua hautsi duenari gauzak hasierako egoerara itzultzeko eta eragindako kalteengatiko ordaina eskatzearekin.

Bosgarren titulua – Zerga bilketaren kudeaketa

25. artikulua. Egite zergagarria

Udal jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia da zerga gaia.

26. artikulua. Subjektu pasiboa

Subjektu pasiboak eta, beraz, zergadunak dira Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatzen diren erakundeak eta pertsona fisiko eta juridikoak, baldin eta era berezian gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute tokiko jabari publikoa beren onerako. Administrazio publikoek, erkidego autonomoek eta toki erakundeek ez dute tasarik ordaindu beharko, baldin eta jabari publikoaren erabilera pribatu edo aprobetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikabide-zerbitzu publikoei atxikitako aprobetxamenduak eta herritarren segurtasunaren edo defentsa nazionalaren zuzeneko interesen aprobetxamenduak badira.

Tasak dagozkien lizentzien titularrek ordaindu beharko dituzte edo, bestela, aprobetxamenduz onura ateratzen dutenek.

27. artikulua. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak emateko, aplikatzekoak diren xedapen orokorretan ezarritakoari lotuko zaio.

28. artikulua. Zerga-oinarria

Jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia gertatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinean adierazitakoaren arabera.

29. artikulua. Kuota

1. Zerga kuota, eranskinean ezarritakoaren arabera, tarifa bat ezartzean lortutako kantitatea da.

30. artikulua. Zerga aldia eta sortzapena

1. Zerga gaiaren izaeraren arabera, tokiko jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia dela kausa ordaindu beharreko tasa une hauetan sortuko da: edo erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta kasu horretan horri dagokion zenbatekoaren zati bat edo guztirakoa aldezturik gordailutzeko eska daiteke; edo jarduera edo espedientea abiarazten duen eskabidea aurkezten denean, eta orduan jarduera ez da burutuko edo espedientea ez da izapidetuko dagokiona ordaindu arte.

2. Tasaren izaera materiala dela-eta tasa aldi-aldi sortu behar bada, hori urte bakoitzaren urtarrilaren 1ean egingo da eta zergaldiak urte naturala hartuko du, erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia hasi edo amaitzen den kasuetan izan ezik, egoera horretan zergaldia horren arabera egokituko baita, kuotari dagokion hainbanaketa ezarrita, eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3. Subjektu pasiboari egotzi ez dakizkion arrazoien ondorioz jabari publikoaren erabilerako edo aprobetxamendurako eskubidea erabili eta garatzen ez bada, subjektu pasiboak dagokion zenbatekoa itzultzeko eskatu ahalko du.

31. artikulua. Likidazioa eta sarrera

Konzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa udal administrazioak egingo du, eta likidatutako kuota dirutan ordaindu beharko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinean dauden arauen arabera.

32. artikulua. Tasen kudeaketa

Ordenantza honek arautzen dituen tasen likidazioarekin, bilketarekin eta ikuskapenarekin eta kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenen kalifikazioarekin zerikusia duen guztia arautzeko udal jabari publikoaren erabilera pribatuagatik eta aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza aplikatuko da, C epigrafea (Erabilera publikoko lursailak aulki, mahai eta mahaitxoekin okupatzea, irabazi asmoz), bai eta Arabako Lurralde Historikoko zergen Foru Arau Orokorra ere.

Xedapen iragankorra

Lehenengoa. Ordenantza hau indarrean jarri baino lehen baimenduta dauden terraza guztiek altzariak berritzen dituztenean erregularizatu beharko dute egoera eta 14. artikuluan jasotako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Xedapen indargabetzailea

Ordenantza hau indarrean jartzen denean, indargabetuta geratuko dira bertan ezarritakoarekin bate z datozen edo beraren kontrakoak diren maila bereko eta beheragoko mailako arau guztiak.

Ordenantza hau behin betiko onartzeak ekarriko du udal jabari publikoaren erabilera pribatuagatik eta aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza egokitu beharra, C epigrafea (Erabilera publikoko lursailak aulki, mahai eta mahaitxoekin okupatzea, irabazi asmoz), hain zuzen ere.

Azken xedapena

Ordenantza hau Tokiko Araubidearen Oinarriak arautu dituen Legean ezarritakoaren arabera sartuko da indarrean.